

UBIDEKO "TXISTU"

Doinua: "Iparragirre"

1

Gure Joxinixio
lagun atsegina
ta euskaldun fina;
gaur Ubideak daukan
isildu ezina.
Gogoz jarraitu dozu
Jesusen dotrina,
danei on egitea
zure ahalegina;
nok joko ete deuskuz
Txistu-tanbolina?

2

Joxinixio zinan
danen adiskide,
auzo ta senide;
kristau zintzoa eta
euskal aberkide.
Txistu ta tanbolina
guztien pozbide,
mesede egiteko
beti partekide;
ez da errez ahaztuko
"Txistugaz" Ubide!

3

Txikitatik zenduan
Txistu-egarria
Jaunak ezarria;
bai laster aurkitu be
zuk iturria!
Han-hemen izan zara
danen pozgarria,
kukuk lez zabalduz
zeuk udabarria;
zeuk alaitzen zenduan
Ubide herria.

4

Praktikatu zenduan
euskaldun kirola
poza dariola,
zeu izan zara hemen
maisu ta eskola.
Ondo daki herriak
zorretan dagola,
eta ezin deusula
ordaindu inola;
hortarako behar da
euskotar odola.

5

"Hiru gailurrak" egin
behin baten sikira,
gehiago al dira?
Eta ahal zan guztian
itsuan frontoira.
"Amexier" taldean
mendiz-mendi jira,
eta Zeledon hartzen
jaun Landak konbida;
baina danen gainetik
lehenen Batzokira.

6

Zure aldera daukat
hau esan beharra:
zinan eleiztarra;
horrek emon eutsula
bizitzan indarra.
Abertzalea zinan
betez Lege Zaharra:
"Gora Jainkoa eta
Euskadi bakarra";
bat baino ez da izan
"Txistu" ubidetarra.

7

Herritarrak dinoe
zu ona zinala,
dabil bala-bala;
bihotz bigunekoa
ta eskuzabala.
Zure legea beti:
"emon hartu ahala",
diruz pobrea baina
gizon mundiala!
Orain Jaunak zeruan
saritu zaizala.

8

Herritarrak zuretzat
ezker-eskubiko
ta bardin erdiko,
danen gainetik ziran
guztiak herriko.
Zuk ez zenkian zer dan
adar, ez ostiko,
zu ez zinan ibili
zer irabaziko...
Jesukristo zenduan
maisua betiko.

A. Martzel